

# KK NULL & THE NOISER



Aurkezpena - Zuzenekoa

## KK NULL (jp) & THE NOISER (fr)

*Martxoaren 11a ostirala*

19:00 / Arteleku

Antolatzailea: Audiolab

Kazuyuki Kishino Japoniako noise musikaren mugimenduko izen nabarmenenetakoa da. 80ko harmakadatik gaurdaino, bere musika abenturek, bereziki ZENI GEVA bezalako rock taldeetan parte hartuz edo bere bakarkak So proposamen elektronikoen bidez, nazioarteko musika esperimentalaren zirkuituan ohiko bihurtu dute bere izena. Bide luze hortan Kishinok Min Tanaka Butoh dantzaria, Merzbow, Seijiro Murayama (Fushitsuha), Tatshuya Yoshida (Ruins), Eye Yamatsuka (Boredoms, Naked City), Chris Watson (Cabaret Voltaire), Keiji Haino edo Fred Frith izan ditu lagun, eta nazioarteko jaialdi esaguratsuenetan aurkeztu zuen bere lana. Hogei urteren ondoren gitarra musika tresna nagusi bezala izan ondoren, KK Null-ek elektronikarentzako joera hartu zuen, zarata elektronikoa, ambient elektroakustikoa, erritmo puskatuak eta drone pisutsuak erabiliz minimalismoaren eta maximalismoaren artean kokatzen den musika gihartsua osatuz.

The noiser (zaratazalea) izenaren azpian Julien Ottavi media-aktibista, artista, ikerlari, konposatzailea gordetzen da. Nantes hiriko Apo33 plataformako sortzaile ta kideak, soinu artea, bideoa, teknologia berriak eta gorputz performance-a nahasten dituen sorkuntza lana jorratzen du. Azken hamarkadan bereziki ahotsa eta honen ordenagailu bidezko eraldaketa izan du ikergai Ottavik, software librea erabiliz eta bere gailu elektronikoak (irradi transmisoreak, osziladoreak, mixerrak...) sortuz. Horren haritik APODIO izeneko linux distribuzioaren sortzaile nagusia da. Musikaren alorrean Formanex bezalako taldeetan hartu du parte eta Jenny Pickett, Brandon Labelle, Keith Rowe, Kasper T. Toeplitz, Christian Galarreta, Zbigniew Karkowski, Randy Yau, Dion Workman edo Phill Niblock bezalako artistekin egin du lan.

Loturak:

<http://www.kknull.com/>  
<http://www.a10lab.info>

<http://www.noiser.org>  
<http://fibr.apo33.org>

<http://www.apo33.org>  
<http://ecos.crealab.info>